



EGUESIBARKO UDAL-ERROLDAN ALTA EMATEKO AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Beharrezko dokumentazioa

Erroldatze telematikoa eskatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa

Egoitza edo Bulego Elektronikoen bitartez aurkeztutako eskabideen kasuan, alta eskatu duten guztien indarreko identifikazio-agiriaren (NAN, AIZ edo pasaporte) kopia aurkeztuko da, bai eta ondorengo dokumentuak ere:

1. Adinez nagusi eta adingabe emantzipatu guztiek elektronikoki betetako eta sinatutako errolda-orria, erroldatuta egon diren azken udalerrria eta ikasketa-maila adieraziz (*ikusitako errolda-orria inprimakia dokumentazio-ereduak atalean*).
2. Aurkeztu beharreko dokumentuak hurrengo atalean zehazten dira: "Aurrez aurreko erroldatze-eskaera, aurretiko hitzorduarekin".
3. Eskabide telematikoetan, bai eskaera Biztanleen Udal Erroldan onartu eta finkatzeko abisua, bai eskaera ukatu izanaren jakinarazpena edo errekerimenduen bidalketa ere bitarteko elektronikoen bidez egingo dira; horretarako, Eguesibarko Udalak mezuak eta jakinarazpenak utziko ditu eskatzailearen herritarren karpetan, eta gordailu horren ohar bat bidaliko zaio emandako helbide elektronikora.

Aurrez aurreko erroldatze-eskaerarako aurkeztu beharreko dokumentazioa, aurretiko hitzorduarekin

1.- IDENTIFIKAZIO-AGIRI BALIODUNAK:

-ESPAINIAKO HERRITARREN KASUAN, nortasuna egiaztatzeko balio duten jatorrizko dokumentuak:

- ✓ Adin nagusikoentzat eta 14 urte beteta dituzten adingabeentzat:
 - NANA edo, halakorik ezean, pasaporte (*14 urterekin nahitaezkoa da nortasun agiri nazionala eskuratzea*)
- ✓ 14 urtetik beherakoentzat:
 - Familia-liburua edo jatorrizko jaiotza-ziurtagiria, eta NAN edo pasaporte, halakorik badute.

NANA edo pasaporte iraungita daudenean, agiri horiek iraungita aurkeztu beharko dira berritze-eskaerarekin batera.



-ATZERRIKO HERRITARREN KASUAN, nortasuna egiaztatzeko balio duten jatorrizko dokumentuak eta indarrean daudenak:

- ✓ Adin nagusikoentzat eta 14 urte beteta dituzten adingabeentzat:

Europar Batasuneko estatu kideetakoak, Islandiakoak, Liechtensteinekoak, Norvegiakoak eta Suitzakoak badira:

- Atzerritarren Erregistro Zentraleko inskripzio-ziurtagiria, indarrean dagoen pasaportearekin edo jatorrizko nortasun-agiri nazionalarekin batera;
- Edo, halakorik ezean, jatorrizko herrialdeko agintariak emandako indarreko agiri nazionala edo pasaporteak bakarrik.

(Herrialde horietako nazionalak Atzerritarren Erregistro Zentralean izena emateko betebeharra dute, baldin eta Espainian hiru hilabete baino gehiagoz bizi nahi badute, horrela, AIZ zenbakia lortuz).

Beste nazionalitate batzuetakoak badira:

- Egoitza-baimena (aldi baterako AIZ, iraunkorra edo iraupen luzekoa, Europar Batasunekoak) edo, halakorik ezean, indarrean dagoen jatorrizko pasaporteak.

(Jatorrizko herrialdeko agintariak emandako agiri nazionala ez da baliozkoa).

- ✓ 14 urtetik beherakoentzat:

- Familia-liburua edo jatorrizko jaiotza-ziurtagiria, AIZ, pasaporteak edo agiri nazionala (hala badagokio).

(Indarrean dagoen bizileku-baimenak –AIZ–, Espainiako agintariak emandakoak, lehentasuna du beste edozein identifikazio-agiriren aurretik).

Bizileku-baimena edo pasaporteak iraungita daudenean, agiri horiek iraungita aurkeztu beharko dira berritze-eskaerarekin batera.



2.- OHIKO ETA BENETAKO BIZILEKUA EGIAZTATZEN DUTEN AGIRIAK:

-Norberaren etxean bizi bada:

- ✓ Bulegoak ofizioz egiaztatuko du, katastroa kontsultatuta.
- ✓ Etxea berriki eskuratu bada, erosketa-kontratua, eskriturak, testamentua edo herentziaren onarpena.

-Errentamendu-kontratuarekin norberarena ez den etxebizitzan bizi bada:

- ✓ Indarrean dagoen errentamendu-kontratuaren, alokairua ordaindu izanaren azken ordainagiriarekin batera.
 - *(Errentariaren bizilekua egiaztatzeko, baliozkotzat joko dira lehen mailako aurreko belaunaldiko kideak –gurasoak- eta lehen mailako ondorengo belaunaldiko kideak –seme/alabak-, ezkontidea edo izatezko bikotekidea).*
 - Jabearen baimena hirugarren pertsonak erroldatzeko, baimena eman duen pertsonaren NANaren kopiarekin batera. *(ikusi “bizileku-baimena” inprimakia dokumentazio-ereduen atalean).*

-Beste baten etxebizitzan bizi bada errentamendu-kontraturik gabe:

- ✓ Errentamendu-kontraturik ez badago, jabearen baimena etxebizitza okupatzeko, baimena eman duen pertsonaren NANarekin batera. *(ikusi “bizileku-baimena” inprimakia dokumentazio-ereduen atalean).*

3.- ORDEZKARITZA EGIAZTATZEN DUTEN AGIRIAK:

-Adin nagusikoen borondatezko ordezkariak:

- ✓ Borondatezko ordezkariak Eguesibarko Udalean ekintzak eta kudeaketak egiteko *(ikusi “ordezkariak-ordenaren” inprimakia dokumentazio-ereduen atalean)*
- ✓ Ordezkaria/interesduna identifikatzeko indarrean dagoen agiriaren jatorrizkoa.

-Adingabeen legezko ordezkariak:

- ✓ Adingabeek ez dute beren kabuz jarduteko gaitasunik erroldako alta eskatzeko. Gurasoek edo legezko ordezkariak eskatuko dute beren izenean, familia-liburua edo jaiotza-ziurtagiria aurkeztuta.

-Adinez nagusiko ezgaituen legezko ordezkariak:

Judizialki ezgaitutako adin nagusikoen kasuan, tutore izendatutako pertsonak eskatuko du erroldako alta, ezintasun eta tutoretza hori egiaztatzen duen epai judiziala aurkeztuta.



Informazio gehigarria

4.-ADINGABEEN ERROLDATZE-KASU BEREZIAK:

Emantzipatu gabeko adingabeek beren zaintza edo jagoletza duten gurasoen auzotasun bera izango dute, haiek beste bizileku edo udalerrri batean bizitzeko idatzizko baimena eman ezean.

-Gurasoek adingabea familiakoa ez den beste etxebizitza batean erroldatu nahi badute

Honakoak erantsi beharko dituzte:

- ✓ Elkarren arteko baimena. Beste udalerrri edo helbide batean bizitzeko baimen-agiria (*ikus* *"adingabeen baimen-inprimakia", dokumentazio-ereduen atalean*), amak eta aitak sinatuta.
- ✓ Gurasoen identifikazio-agiriaren kopia, familia-liburua eta,
- ✓ Etxebizitzaren jabeak edo errentariak sinatutako baimena (*ikus* *"bizileku-baimena" inprimakia, dokumentazio-ereduen atalean*).

-Adingabeak gurasoetako bakar batekin erroldatuta daudenean:

- ✓ 1.kasua (guraso-ahala partekatua bada)
 - Elkarren arteko baimena, adingabeari Biztanleen Udal Erroldan alta emateko edo egoitza aldatzeko (*ikus* *"adingabeen baimena" inprimakia, dokumentazio-ereduen atalean*).
Gurasoen identifikazio-agiriaren kopia eta familia-liburua.
 - Elkarrekiko adostasunik ez badago, eta adingabearen zaintzari eta jagoletzari buruzko ebazpen judizialik ez badago.
Salbuespen gisa, I. eranskina izeneko erantzukizunpeko adierazpena sina daiteke (*ikus* *"I. eranskina" inprimakia, dokumentazio-ereduen atalean*).
 - Elkarrekiko adostasunik ez badago, baina zaintza eta jagoletza eskusiboki gurasoetako bati esleitzen dion ebazpen judiziala badago.
Salbuespen gisa, II. eranskina izeneko erantzukizunpeko adierazpena sina daiteke (*ikus* *"II eranskina" inprimakia, dokumentazio-ereduen atalean*), dagokion ebazpen judiziala aurkeztuz.
- ✓ 2.kasua (guraso-ahala partekatua ez bada)

Guraso-ahala bi gurasoek partekatzen ez badute, ez da beharrezkoa guraso-ahala kendu zaion gurasoak baimena ematea adingabearen errolda-alta edo bizileku-aldaketa eskatu ahal izateko.

Kasu horretan, guraso-ahala gurasoetako bati bakarrik esleitzen zaiola egiaztatzen duen ebazpen judiziala aurkeztu beharko da.

-Emantzipazioa:

16 urtetik gorako adingabea emantzipatuta egon daiteke, eta horrek «adingabea gaitzen du bere pertsona eta ondasunak nagusi gisa gobernatzeko» (Kode Zibilaren 316. artikulua eta hurrengoak).

-Administrazio Publikoen tutoretzapean, zaintzapean edo babespean dagoen adingabea:

Administrazio Publiko batek eskatzen badu erroldatzea, administrazio horrek adingabearen legezko ordezkaritza duela egiaztatu beharko du, eta dagokion administrazio-ebazpenaren jatorrizkoa aurkeztu beharko du.

-Familia-harrerako edo adopzioko egoeran dagoen adingabea:

Harrera-familiaren edo adoptatzailearen alde adingabearen familia-harrera edo adopzioa eratu duen ebazpen administratibo edo judizialaren jatorrizkoa eta kopia aurkeztuko dira.

5.-BESTE ERROLDATZE KASU BEREZI BATZUK

Establezimendu kolektiboetan erroldatzea:

Interesdunek establezimendu kolektibo batean erroldatu nahi badute (egoitzak, ostatuak, komentuak, etab.), errolda-baimena zentroko arduradunak sinatu beharko du, erakundearen zigiluarekin batera.

Prozeduraren edo ebazpenaren epea

- Aurreikusitako epea: berehalakoa.
- Ebazteko legezko gehienezko epea: hiru hilabete.

Arauk

-39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. (2015/10/2ko EAO, 236. zk.)

-7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen. (1985/04/03ko EAO, 80. zk.).

-4/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena, udal-eroldari dagokionez. (1996/01/12ko EAO, 11. zk.)

-1690/1986 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, Toki Erakundeen Biztanleriari eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamendua onartzen duena. (EAO, 194. zk., 1986/08/14koa), abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuak aldatua. (1997/01/16ko EAO, 14. zk.)

-3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa

-Ebazpena, 2020ko apirilaren 29koa, Idazkariordetzarena, 2020ko otsailaren 17ko Ebazpena argitaratzen duena, Estatistikako Institutu Nazionaleko Lehendakariaren eta Autonomia Erkidegoetako eta Tokiko Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiarena, udalei udal-eroldaren kudeaketari buruzko jarraibide teknikoak ematen dizkiena.

-2023ko otsailaren 3ko Ebazpena, Estatistikako Institutu Nazionaleko Lehendakariaren eta Autonomia Erkidegoetako eta Tokiko Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiarena 2020ko otsailaren 17ko Ebazpena aldatzen duena, zeinaren bidez jarraibide teknikoak ematen baitzaizkie udalei udal-eroldaren kudeaketari buruz. (EAO, 33. zk., 2023ko otsailaren 8a, asteazkena).